

AITZINSOLASA: INKESTA BATEN INGURUKO SOLASAK / PRÉFACE : CONVERSATIONS AUTOUR D'UNE ENQUÊTE

Jakes Aurnague irakasleak Garaziko inkesta bururatua zuen haren ezagutza egin nuelarik. Noiz eta nola, ez naiz oroit. 1982an ene egoera profesionala biziki mugikorra zen. Familia Milafrangan kokatua, kurtso batzu Donostian Euskal Herriko Unibertsitatean, baina lan finkoa Quebecen nuelakotz, han pasatzen nuen udazkeneko ikastaldia, agorrietik abenduraino. Formakuntza bat egin nuen Laval unibertsitatean zen elebitasunari buruzko ikerketa zentro famatuan (CIRB).

Egoera horrek bazuen zerbait onik ere. Ene bitartez harremanak lotu ziren Hegoaldean euskalgintzako kargudun batzuren eta Quebecoko hizkuntza arduradunen artean. Han ibili ziren eta jarraian Euskal Herrira etorri ziren William Mackey edo Jean-Denis Gendron bezalako hizkuntzalari famatuak. Mintzaldiak egin ziren Baionan ere Pizkundea batasunaren babesean.

Hezkuntza nazionala eta herri hizkuntzak

Denbora hartan Jakes Aurnague ari zen bere artikuluak publikatzen *Berriak* hilabetekarian eta noizean behin hitz egiten genuen bereziki elebitasunaz. Bere kezka nagusia zen ikustea Hezkuntza Nazionalaren eragina euskararen kontra. Irakasle zelarik ikusi zuen Baxenabarreko familiak hain euskaldunak zirelarik nola haurrak euskara galtzen zuten eskolaren bidez.

Michel Inchauspe ministro zelarik lehen irakasle ibiltariak izendatu ziren eta eskoletan zebiltzan euskal kurtso batzu eginez. Astean oren pare bat euskaraz, ez zen aski frantsesari buruzko asimilazioa geldiarazteko. Sozialistak boterean sartu zirelarik, ministroen ele ederrengatik, gutun zirkular epelek (nola Savary hala Jospin) erakustera emaiten zuten ez zela egiazko borondate politikorik herri hizkuntzak bizirik atxikitzeko eta aitzinarazteko. Asimilizioak etengabe jarraitzen zuten, gaur egun «garbiketa linguistikoa» aipa genezake. Zinez ulergarriak dira Jakesek ateratzen zituen piko zorrotzak eta ohar bortitzak politikariei buruz, hizkuntz politika lazgarria salatzeke.

Ikusten zuen aterabide bakarra, ikastolen didaktika zen, euskarari lehen tokoa emaiten ziona, jakinez jokamolde horrek ez duela frantsesaren ikaskuntzari kalterik egiten. Jadanik aipu ziren irakaskuntza elebidunak, eskola publikoetan ere. Nolazpait ikastolen arrakastari aurre egiteko, bai eta ere irakasle eta inspektore batzuk ulertu baitzuten elebitasunak ekartzen dituen aberastasun kulturalak. Baina irakaslegoaren gehiengo handiena ikasbide horien aurka zen, bereziki sindikatuen aldetik.

Jakes bazebilen batzu eta besteen ikusten, elebitasunaren aldeko agiria idatziz, sinadurak bilduz. Irakasle zerrenda luze bat erakutsiz hitz egiten zuen sindikatuen bilkuretan, hizkuntzalari ezagunak aipatuz, mundu zabaleko adibideak emanez, denbora heietan hain ezagunak ziren eskola elebidunak Miamin, Berlinen edo Montrealen. Azkenean 1983an antolatuko da Sarako lehen ikasgela elebiduna, kanpotik etorri irakasle batekin.

Jatorrizko ikerketa bat

Horiek hola Garaziko inkesta bere denborako aitzinatuenetarik zen Iparraldean. Ordu arte demolinguistika kondaketak egiten ziren. Adibidez 1970eko hamarkada hastapenean Pedro de Yrizar Euskal Herri osoan herriz herri ibili zen jende ezagunak galdezkatuz, alkate, apaiz ala irakasle¹. Iparraldean ere euskaldunen kondua atera zuen, toki euskaldunetan, kostaldea eta Aturrialdea baztertzuz.

Hegoaldean bai, SIADECO soziologia ikerketak, Euskaltzaindiak eskaturik, soziolinguistika ikerketa zabal bat egin zuen 1975eko eroldaren emaitzak baliaturik. Laburpen bat zabaldu zen *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*². Mapetan Iparraldea agertzen zen baina ez zen hemen ikerketa berezirik egin.

Dena dela Jakesen lana jatorrizkoa izan zen. Talde mugatu batean, Garaziko kolegioetako ikasleen bitartez, euskararen bilakaera aztertu zuen, beherakadaren zergatiak bilatuz. Konparatu zituen familietako hizkuntz jokabideak, eskolaren eragina gaitasun linguistikoari begira eta kanpoko erabilera, nola herrietan hala eskolaz kanpoko ekintzetan. Eta familiren barnean ere neurtu zuen euskararen aldaketak hiru gizaldietan, aitatxi-amatxiekin, senar-emazteen artean, guraso eta seme-alaben artean, haurrideen artean. Tipologiak atera zituen hiztunak eta familiak sailkatzeko. Konstante batzu aurkitu zituen euskararen jarraipena edo gainbehera ulertzeko.

Bere jakinean edo ez, Jakes demolinguistikatik soziolinguistikara pasatu zen. Bai eta geolinguistikara ere, euskalgoaren mapa egin zuelarik hirialdean, hiri bazterreko zelaietan eta mendi gainetako herrietan. Bere lana seriozki eramaiteko behar zituen tresna intelektualak bildu zituen, liburuak irakurriz eta hizkuntzalaritza aplikatuan zerbait zekitenekin hitz eginez. Oroit gaiten 1970eko hamarkadan soziolinguistika ikerketak eta elebitasunari buruzko aplikazio baikorrak gogoeta berri berriak zirela. Ikastolak aspaldidanik baziren, baina murgilbidearen teorizazioa berantago egin zen. Iparraldean Jakes egiazki aitzindari izan zen, alabaina hemengo inkesta zabalak SIADECO erakundeak egin zituen geroago, 1988an barnekaldean Sû Haziarentzat³ eta 1991ean lurralde osoan Eusko Jaurlaritzarentzat⁴.

Donostiako mintzaldia

UPV/EHU, Euskal Herriko Unibertsitateak udako ikastaroak antolatzen ditu. Baina UEU Udako Euskal Unibertsitatean kurtso guztiak euskaraz emaiten

1. YRIZAR, P. de (1973). «Los dialectos y variedades de la lengua vasca». *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*.

2. Euskaltzaindia (1979). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*, SIADECOren informea, laburpena Martin Ugalde, itzulpena Elhuyar taldea. Ediciones Vascas, Donostia.

3. Association Sû Hazia (1987-1988). *Etat de la langue basque dans les trois provinces (Labourd, Basse-Navarre et Soule)*, enquête sociolinguistique réalisée par SIADECO, rédacteur Txomin Heguy, directeur de l'Institut Culturel Basque, Ustaritz.

4. Eusko Jaurlaritza (1991, 1996, 2001). *Euskararen jarraipena I, II, III*, Euskal Herriko soziolinguistikazko inkestak. Vitoria-Gasteiz.

direlarik, EHUko ikastaldietan Europako zeinahi hizkuntza erabiltzen da, berehalako itzulpen sistema baten bidez.

1984ean hizkuntza aplikatuaren sailak euskarari buruzko ikerketen aurkezpena programatu zuen. Garaziko inkesta aipatu bezain laster antolatzaileek onartu zuten. Uda guztian, Peyo ene anaia, Jakes eta hiruak mintzaldiaren prestakuntzari lotu ginen. Gai nagusia Jakesen inkesta zen, eta karia horretara 8 orrialdeko sintesia egin zuen, emaitza nagusiak agerian ezarritik, bere errent izkirio politean. Peyo informatikan aditua zen, alabaina Claude Harlouchetekin informatika programak asmatu zituzten Bordeleko unibertsitatean, ekonomia gaietan erabiltzeko. Jakesen emaitzak 50 aldagaietan sartu ziren, zernahi aldagai kurutzaketa egiteko, etengabeko paper erroiluak luzatuz, denboran egiten zen bezala. Ene gain zen emaitza eta taula horien inguruan teorizazio zerbait egitea.

1984eko agorrilaren 25ean gure kurtsoa aurkeztu genuen, Donostiako entzutegi batean. Frantsesez egitea hautatu genuen, hori baitzen hiruentzat mintzamolde trebeena, hiruen artean erabiltzeko. Mintzaldi denboran itzulpena segurtatua zen. Oroit naiz galdeak egiteko denboran denek euskara erabili genuela eta Hegoaldeko ikasleak loriatuak zirela Garaziko euskara berezia entzuteaz.

Hona nola lana banatu genuen gutartean. Peyok taulak presentatu zituen. Taula batek erakusten zuen euskararen beherakada familietan adinaren arabera. Beste batek agertzen zuen hizkuntza jokabideen eragina: gurasoek hurrei euskaraz (edo frantsesez) mintzatzen zirelarik, orduan hurrek nola erantzuten zieten gurasoei. Oro har informatikak baieztatzen zituen Jakesek paper eta lapitzarekin atera zituen ondorioak.

Nik hizkuntz funtzioen deklinabidea egin nuen Henri Gobarden *L'aliénation linguistique* liburutik eta erakutsi nuen elebitasun pertsonalaren aberastasuna, elebitasun etnikoaren arriskuari konparatuz. Azkenean ene mezua izan zen hizkuntza baten erroak familietan zirela. Gizaldi arteko transmisioa mozten bazen ez zuela eskolak betetzen ahal familiaren eginbidea.

Jakesen mezua aberatsago izan zen, familiaren eragina gizartearen barnean kokatu baitzuen. Gurasoek bi hizkuntzak erabiltzen badituzte, hurrek ulertuko dute, ingurumen sozialaren eraginez, hizkuntza garrantzitsuena frantsesa dela, etxean eta kanpoan balio baitu. Aldiz gurasoak beti euskaraz ari badira etxean, lanean eta aizinaldietan, hizkuntza honek harrigarriko ospea hartzen du hurren gogoan. Mintzaldi guztian elebitasunaz hitz egin ondoan, Jakesek azken esaldian azpimarratu zuen euskarazko elebakartasunaren «normaltasuna eta naturaltasuna».

Hain segur hemen dago Jakesen mezua, euskal nortasun berezia salbatuko da eta indartuko, gutartean euskara hizkuntza nagusia bilakatuko den heinean.

L'enquête de Jakes Aurnague était déjà terminée au moment où j'ai fait sa connaissance. A quelle occasion ? Je n'en ai aucun souvenir. Il est vrai qu'en 1982 ma vie professionnelle était assez mouvementée. Ma famille s'était fixée à Villefranche, j'assurais quelques cours à l'Université du Pays Basque, campus de St-Sébastien. Mais mon seul contrat stable étant au Québec, j'y enseignais pendant la session d'automne à partir du 15 août. En décembre je revenais au pays : cours, permanence à Ikas, élaboration de la méthode *Euskaraz Bizi*.

J'avais bénéficié d'une formation au Centre international de recherche en bilinguisme (CIRB), à l'Université de Laval. Or cette situation transcontinentale présentait quelques avantages. Par mon intermédiaire des relations se tissèrent entre des enseignants et des élus de la Communauté Autonome et des responsables linguistiques de Québec (ou d'Ottawa). Suite à un voyage d'étude, plusieurs linguistes célèbres comme William Mackey et Jean-Denis Gendron furent régulièrement invités au Pays Basque. Des conférences-débats et des échanges informels eurent lieu également à Bayonne à l'invitation de la fédération Pizkundea.

Education nationale et langues régionales

C'est peut-être à l'une de ces occasions que j'ai rencontré Jakes qui publiait ses articles dans le périodique socialiste *Berriak*. Il me parlait de l'action qu'il menait auprès du syndicat des enseignants pour expliquer le devoir qu'a l'Education nationale de sauvegarder la culture basque. Patiemment il avait constitué une liste d'enseignants favorables à l'éducation bilingue pour que les élèves puissent bénéficier des deux cultures.

C'était l'époque de l'essor des ikastola et des enseignants itinérants. Mais l'école publique restait fort réticente malgré les possibilités offertes par la loi Haby (1975) et la circulaire Savary (1982). L'Education nationale était même sur le point de réussir son projet séculaire d'assimilation culturelle de toutes les régions à laquelle Cerquiglini a donné la dénomination pudique de « monoglossie française ».

Jakes a vécu de l'intérieur la progression inexorable de ce qui pourrait s'appeler plus crûment « une purification linguistique ». Sa révolte contre le saccage de l'identité collective basque explique ses expressions parfois si sévères à l'égard de l'autorité publique indifférente. Ses observations linguistiques minutieuses, ses écrits sur le bilinguisme, la documentation qu'il avait rassemblée sur les écoles bilingues de Miami, Berlin, Montréal firent progresser la réflexion. Mais il faut attendre 1983 pour voir l'ouverture de la première section bilingue à l'école publique de Sare, grâce à la persévérance de deux inspectrices et aux qualités pédagogiques d'une enseignante venue de la région parisienne.

Une véritable recherche sociolinguistique

Jakes fut un précurseur au Pays Basque Nord. La comptabilisation des bascophones que Pedro de Yrizar avait réalisée dans les années 70 relevait plus de la démolinguistique : village par village il interrogeait les notables, maires, curés ou enseignants sur la situation linguistique des familles, en laissant de côté la région bayonnaise et le pays de l'Adour⁵. SIADECO, un groupe donostiar de recherche statistique, a réalisé en 1979 au Sud une étude statistique de la langue basque pour le compte de l'Académie Euskaltzaindia, avec quelque extrapolation en direction du Nord⁶. Mais leurs recherches sur ce territoire viendront plus tard, en 1988 pour Sù Hazia en Pays Basque intérieur⁷ et 1991 pour le Gouvernement Autonome sur l'ensemble d'Iparralde⁸.

Dans l'intervalle Jakes réalise un authentique travail de sociologie linguistique. Sur une population bien définie, les collégiens de Garazi, il a cherché les causes du recul de la langue basque. Sans se contenter d'un simple comptage, il a établi des comparaisons entre la pratique familiale, l'influence de l'école, l'utilisation du basque au village et dans les activités extrascolaires. Et à l'intérieur de la famille il a analysé l'évolution linguistique d'une génération à l'autre ainsi que dans les fratries, qui étaient relativement nombreuses à l'époque. Il a établi des typologies des familles et des locuteurs et repéré des constantes expliquant le maintien ou le déclin du basque.

Jakes a même établi une carte selon la densité de la pratique du basque, partant de la ville puis allant vers les zones périurbaines et enfin les villages des montagnes. Savait-il qu'il faisait un travail de géolinguistique ? Pour mener sa recherche avec sérieux, il s'était doté d'instruments intellectuels par la lecture d'ouvrages de sociolinguistique, assez rares en français, en discutant avec les linguistes de passage. Il faut se souvenir que dans la décennie 70 la réflexion positive sur le bilinguisme et même la sociolinguistique en étaient à leur début. Les ikastola existaient depuis longtemps mais la réflexion universitaire sur la méthode immersive, par exemple, viendra plus tard.

La conférence de St-Sébastien

L'Université du Pays Basque (UPV/EHU) organisait des cours d'été à dimension européenne et donc polyglottes. A la différence de l'Université basque d'été (UEU) où tout se passait en basque.

5. YRIZAR, P. de (1973). «Los dialectos y variedades de la lengua vasca». *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*.

6. Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca (1979). *Conflicto lingüístico en Euskadi*, Informe SIADECO, resumen elaborado por Martin Ugalde. Ediciones Vascas, San Sebastián.

7. Association Sù Hazia (1987-1988). *Etat de la langue basque dans les trois provinces (Labourd, Basse-Navarre et Soule)*, enquête sociolinguistique réalisée par SIADECO, rédacteur Txomin Heguy, directeur de l'Institut Culturel Basque, Ustaritz.

8. Eusko Jauriaritza/Gobierno Vasco (1991, 1996, 2001). *La continuité de la langue basque I, II, III*, enquêtes sociolinguistiques au Pays Basque. Vitoria-Gasteiz.

En 1984 le département de linguistique appliquée avait programmé la présentation d'enquêtes linguistiques. Sitôt proposée, l'enquête de Garazi fut retenue avec enthousiasme car à l'époque ce genre d'étude était assez rare en Iparralde. Dès le mois de juillet, Jakes, Peyo mon frère, et moi-même, entreprenions la préparation de la conférence. Le sujet central était l'enquête dont Jakes avait fait une synthèse mettant en exergue les données principales, document écrit à la main de sa belle écriture d'instituteur. Peyo était spécialisé en informatique et, avec Claude Harlouchet, il avait créé des programmes pour les recherches en économie. Mon frère avait saisi toutes les données sous forme de 50 variables dans le but d'effectuer des croisements sur d'interminables rouleaux de papier. Personnellement, j'avais mission de théoriser les données et les tableaux.

25 août 1984, la conférence se donne dans tel auditorium de St-Sébastien. Nous avons choisi d'exposer en français car c'était notre langue commune la plus pratique. La traduction simultanée était assurée. Mais pendant la période des questions je me souviens que nous avons retrouvé notre langue maternelle, que tous parlaient en basque et que les auditeurs étaient sous le charme du dialecte garaztar.

Voici comment nous avons réparti le travail. Peyo commentait ses graphiques. Un tableau montrait le « decrescendo » du basque en famille en fonction des générations. Un autre faisait apparaître l'influence réciproque des comportements linguistiques : quand les parents parlent aux enfants en basque (ou en français), comment leur répondent les enfants ? Mais, somme toute, l'informatique vérifiait les conclusions que Jakes avaient tirées par la méthode « papier crayon ».

Ma tâche était d'appliquer à la langue basque les réflexions faites au sujet de l'anglais par Henri Gobard dans son ouvrage *L'aliénation linguistique* notamment sur les quatre fonctions que remplit une langue. Je comparais aussi les richesses du bilinguisme personnel avec les risques du bilinguisme ethnique, quand tout un peuple est obligé d'utiliser une autre langue pour son intégration sociale. Mais alors pourquoi deux langues pour remplir les mêmes fonctions ? Autrement dit quelles sont les fonctions spécifiques de chaque langue ? Ma conclusion portait sur l'enracinement familial de la langue et le fait que l'école pouvait difficilement suppléer à la transmission naturelle.

La synthèse faite par Jakes fut plus complète car, à travers ses minutieuses études, il avait bien montré l'articulation de la famille dans la société. Si les parents utilisent deux langues, les enfants comprendront, sous l'influence de l'environnement social, que la langue la plus importante est le français, parce qu'elle vaut à la fois pour la maison et pour l'extérieur. Par contre si les parents emploient toujours le basque en famille, au travail et dans les loisirs, cette langue revêt « un prestige énorme » dans l'esprit des enfants. Après avoir parlé du bilinguisme tout au long de son exposé, Jakes, dans sa dernière phrase soulignait le caractère « normal » de l'unilinguisme. « Une langue qui répond à tous les besoins de la vie (est) une langue à part

entière. Sans oublier que parler continuellement en basque à (une) personne est l'attitude « normale », la relation naturelle ».

Tel me paraît être le message de Jakes : l'identité collective basque se maintient et se renforce dans la mesure où la langue basque devient entre nous la langue principale.

Erramun Bachoc